



### **HERNANIKO UDALEKO ZERBITZU SOZIALAK**

*Oinarrien aldaketa. Hernaniko udaleko zerbitzu sozialak erakundeko funtzionarioen plantillan hutsik dauden hogeitaz klinika laguntzaileen plazak jabetzan hornitzeko hautaketa prozesua arautuko duten oinarriak.*

Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen Zuzendaritza Batzordeak 2020/10/29an erabaki zuen klinika laguntzaile lanpostuen hogeitaz (20) plaza txanda librean eta azterketa eta merezimendu bidezko lehiaketaren bidez betetzeko deialdiaren oinarriak aldatzea.

Erabakiak aldatzen du, deialdiaren hamargarren Oinarria (izendatzea, praktika aldia –kasuan kasu– eta lanpostuaz jabetzea). Izendatuko diren praktiketako funtzionarioek, hilabete praktika aldia egin behar dute.

Aldatu den hamargarren oinarriaren lerrokada hau da:

— *Honela dio:*

10.3.1. Praktiketako funtzionarioek praktika aldia egingo dute. Aldi horrek, 6 hilabete iraungo du eta hautaketa prozesua osatzen duen beste fase bat izango da. Aldi horretan gai edo ez-gai kalifikazioa lortuko da, hamargarren oinarri orokorrean ezarritakoaren arabera.

— *Hau esan behar du:*

10.3.1. Praktiketako funtzionarioek praktika aldia egingo dute. Aldi horrek, hilabete (1) iraungo du eta hautaketa prozesua osatzen duen beste fase bat izango da. Aldi horretan gai edo ez-gai kalifikazioa lortuko da, hamargarren oinarri orokorrean ezarritakoaren arabera.

Hernani, 2020ko urriaren 29a.—Xabier Lertxundi Asteasuinzarra,  
presidentea. (5667)

